



MUGIKORREN ETA GAILU ELEKTRONIKOEN PROTOKOLOA

Orioko Herri Ikastolak gailu mugikorren erabilerari buruzko arau eta erabilera-protokolo hauen berri ematen dio bere hezkuntza-komunitateari, gailu mugikorrak ikasgeletan, eskola-bizitzan eta, azken batean, ikasleen hezkuntza-prozesuan (gizatiarra zein akademikoa) behar bezala integratzea arautzeko eta lortzeko asmoz. Arau eta protokolo hauen funtzio nagusia ikastetxearen eguneroko bizitza sustatzea eta antolatzea da, bai eta Ikastolaren funtzionamendu ona eta hezkuntza-komunitateko estamentuen arteko bizikidetzatza ahalbidetuko duten arauak hartzea ere (legez arautuak izan ala ez).

Irakasleen Agintaritzari buruzko Legeak agintari publikoaren izaera aitortzen die Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko, itundu eta pribatuetako zuzendariei eta zuzendaritza-taldeko gainerako kideei, bai eta gainerako irakasleei ere. Agintari publiko izateak aukera ematen die behin-behineko neurriak hartzeko, ikastetxeko bizikidetzatza-arauen aurkako jokabideak gerta daitezkeenean, hezkuntza-jardueren garapen normala bermatzeko. Nolanahi ere, neurri horiek ikasleen gurasoei edo legezko tutoreei jakinaraziko zaizkie.

Horregatik guztiagatik, Ikastolako zuzendaritzak, Artezkaritzak onartuta, egokitzen jo du protokolo hau ezartzea ikastetxean erabil daitezkeen ordulari adimentsu edota gailu mugikorren erabileraren inguruan:

1. Debekaturik dago telefono, ordulari adimentsu zein beste edozein motatako tresna elektronikoko ikastolako orduetan (Ikastola barruan zein kanpoan) erabiltzea. Jangela, irteera, txango, ibilaldiak edota ikasbidaia (DBH4ko ikasleek, Ikastolako ibilbidea amaitzean egiten duten ikasbidaia salbu, mugikorraren erabilpena protokolo propio batean jasota dagoena) ikastorduak direla kontutan izanik eta irakasleen ardurapean egonik, ezingo da aurretik aipatu diren gailu pertsonalik erabili Ikastolako inongo espazioetan.

1. Ikasturte hasierako guraso bileretan, protokolo honen berri emango zaie familiei eta Ikastolara inongo mugikorrik edo ordulari adimentsurik ez ekartzea gomendatuko zaie familiei. Baita ere ikastola orduetatik kanpo konfiguratzatza erabilpena.
2. Larrialdietarako deiak egiteko idazkaritzako zein irakasle geletako telefonoak erabili ahal izango dituzte ikasleek.

3. Ikasleak ez dira bere jabetzakoa ez den gailu batekin ibiliko. Ikaslearen jabetzakoa ez den ordulari adimentsu edota gailu mugikorraren erabilera okerreko ondorioak (apurtzea, galtzea edo kaltetzea), ikasleak berak edo honen familiak hartuko ditu bere gain.
4. Era berean, ez da beste ikaskideen pasahitzik edo posta-konturik trukatu behar.
5. Ikastetxeak sortutako posta-kontua irakaskuntza-lanetarako baino ez da erabiliko.
6. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren eta Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoaren arabera, debekatuta dago zentro barruan irudiak edo audioa grabatzea. Legeak tipifikatutako eta zigortutako delitua da irakasleen eta ikaskideen irudiak behar den baimenik gabe erabiltzea. 14 urtetik beherakoen irudiak eta datu pertsonalak gurasoen edo legezko tutoreen berariazko baimenarekin baino ezin dira jaso eta tratatu.
7. Familiei gomendatzen zaie ikastolak ematen dituen orientabide, gogoeta, saio eta ikastaroetan parte hartzea, lagungarri izan daitezen gailu mugikorrak, sare sozialak, Internet eta abar segurtasunez, egoki eta zuzen erabiltzeko. Adingabeen gailu mugikorrak gurasoen jabetzakoak dira, eta, beraz, haiek erabiltzeko erantzukizuna dute.
8. Ikasleren batek arau eta prozedura hauetakoren bat ikastetxean edo ikasgelan beteko ez balu jakinarazpena egingo zaio: ikusi duen irakasleak gailua kenduko dio sobre batean sartu, irakasle eta ikaslearen izen abizenak, kurtsoa, data, tokia eta ordua idatzirik eta irakasle gelan utziko du eta tutoreari jakinaraziko dio. Irakasleak ohartarazpen idatzia Alexia bidez jakinaraziko dio familiari eta hauei jakinaraziko zaie telefonoz aparatua bila etor daitekeela 24 ordu pasa ondoren. Ikasleak arahaustea berriro egiten duen kasuetan arauhausteren gauza bera egingo da, baina irakasleak ohartarazpenean bizikidetzarako aurkakoa dela adieraziko du Alexian (irakasleak familiari berriz telefonoz jakinaraziko dio), eta hirugarren aldian balitz bizikidetzarako

larriki kaltegarria dela ipiniko da, kasu honetan zuzendaritzak erabakiko luke zein zigorra dagokion.

9. Ikastolak beretzat gordetzen du ikaslearen eta/edo haren familiaren aurkako edozein ekintza zibil edo penal, baldin eta ikasgelan eta ikastetxean gailu mugikorrek erabiltzeko arau eta protokolo horiek ez betetzeak kalte edo galeraren bat eragiten badio hezkuntza-komunitate honetako beste edozein kideri edo ikastolari berari.
10. Hezkuntza profesionalak ere, orohar ez dute mugikorra-ordulari adimentsua ikasleen aurrean erabiliko eta irakasle gela zein boxak izango dira hau erabiltzeko mugatutako espazio bakarrak. Hezkuntza profesionalak mugikorra erabili behar duenean, ikasleei emango die arrazoiaren berri (komunikaziorako argazkiak, dei garrantzitsu bat,...), erabilpena ezohikoa izango delako.
11. Familiei ere Ikastolako mugikorrik gabeko espazioak errespetatzera gonbidatuko zaie.

Horrela jasota gera dadin,

Orion, 2024ko **abenduaren 16a**